

BERMEO. Egitamu horren bitartez, galtzear dagoen erriberako aroztegia bultzatuko dabe

Egurrezko ontzia lehengoratu

Udalak asmoa dauka 'Ortube' arrantza itsasontzia barriztatzeko proiektua martxan ipinteko



IRATXE ASTUY

Ortube itsasontzia lehengoratzeagaz batera, Orioko Aita Guria itsasontzia be antxinako baleontzi bihurtu gura dabe.

Iratxe Astuy |

Bermeoko udal agintariek formakuntza, enplegua eta turismoa bultzatzen lagunduko dauzan proiektu itzela ipini gura dabe martxan. Urian lantzen dabilzan egitamuaren arabera, gaur egun desguazerako dagoen *Ortube* ontzia lehengoratze-ko asmoa daukie.

Izan be, Bermeoko arrantza itsasontzi hori egurrezkoa da eta beraz, berau barriztatzeko-beharra hartuz, aukera ederra egongo litzateke bide batez, galtzeko arriskuan dagoen erriberako aroztegiari bultzadea emoteko be. «Gaur egun, Bermeoko Mendieta astilerutan egurrezko ontziakaz bakarrik egiten dabe behar», azaldu dau Juan Karlos Goienetxe Bermeoko alkateak.

Behargintzaren bitartez, Erriberako arozteria eskolea egite-

ko asmoa dauka Udalak eta horretarako, Mendieta ontzitegira jo dau. «Enpresa horrek, Seychelles Errepublikan be, hemen gura dogun moduko eskolea zabaldu eben orain urte batzuk. Gure asmoa, Erriberako aroztegia oinarritzko ikastoki moduan hartzea da, baina ez hori bakarrik: Itsasontziak igoten, *Travelift* sistemea erabiliz ontzien jasorea egiteko. eta eskoramentuaren ganeko ezagupenak eskaintzea be gura dogu, bestea beste», argitu dau Goienetxeak.

Formazino ikastaro hori eginenez, ofizinoaren arlo zehatz horretan Euskal Herritik edota Britainia, Herbehereak eta AEBtik datozen eskariei erauntzun, eta dagoen hutsunea bete-ko beharginak atarako litzateke. Ideia martxan ipini ezkeror, 22 eta 27 urte bitarteko gazteei zuzenduta egongo litzateke Erriberako arotzeria ikastaroa.

LANPOSTUAK

Erriberako arotz gitxi dagoz. Izan be, Mendieta ontzitegia da egurrezko ontziakaz behar egiten dauan bakarra

TURISMOA

'Ortube' itsasontzia barriztateagaz batera, Orioko 'Aita Guria' ontziari antxinako baleontzien itxurea emongo deusie

Taldea be mugatua izango litzateke: 20 edo 25 lagun ez osotako taldea, hain zuzen be.

Behin *Ortube* itsasontzia barriztatuta, baxurako enbarkazi-

no hori bisitariei erakusteko moduan egongo da. «Sistema birtuala erabiliz, gure tradizio-ko arrantza mundua gertu-gerturik ezagutu daien», dino Bermeoko alkateak.

'Aita Guria' baleontzi bihurtu

Ortube ontzia baxurako enbarkazinoa lez barriztateagaz batera, Bermeoko Udalak Orioko *Aita Guria* itsasontzia erosi eta antxinako baleontzian itxuraldatu gura dau, bestalde. «Ontzi horren jabe egiteko asmoa daukagu eta jabeakaz be kontu horren ganean berba egiteko alkartu gara. Hasteko, itsasontziaren itxuraldaketea egingo geunke eta gero, ontzi barrua antxinako baleontziek eukezan baliabide guztiakaz atundu», aurreratu dau alkateak. Arrantzaleen Museoagaz bat eginik, zirkuitu turistiko berberean sartuko litzateke ontzi horreek.

LABURAEAN

MUXIKA

Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen saioa izango da gaur

Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen saioa izango da gaur. Ikuskizuna, Kurtzero auzoko frontoian egingo dabe, 18:00etan.

BERMEO

Mezak Gaztelugatxeko Doniene ermitan

Gaztelugatxeko Donieneko ermitan mezak izango dira, bihar eta etzi. Domekan, 11:30ean, 12:30ean eta 18:00etan emongo dabez, eta astelehenean 6:30etatik hasita, orduro 13:30etara arte. Arratsaldean, meza bakarra izango da, 18:00etan. Bestalde, San Pelaioiko ermitan, bagilak 24an, 13:00etan izango da otoitz ordua. San Joan egunean, bertara joan gura dabenentzat Bizkaibus zerbitzua egongo da.

KORTEZUBI

Txirrindularien VII. Lasterketea egingo dabe

Txirrindularien VII. Lasterketea egingo dabe Kortezubin, bagilaren 24an. Lasterketea 16:00etan hasiko da, eta Kortezubitik urtenda, Arteaga, Laga, Laida, Ibarrangelu, Ereño eta Nabarniz herrietatik igaroko da.

ARRATZU


Enduro eta Quad motorren lasterketea

Enduro eta Quad motorren lasterketea egingo dabe gaur, Arratzuko Belendiz auzoan. Lasterketan lurrezko zirkuitoaren lehenengo zati kronometrauta egingo dabe.

MORGA

Odola emotearen ganeko berbaldia gertau dabe

Gaur, 12:00etan, odola emotearen ganeko berbaldia izango da Udaletxean, Asun Zelaetaren eskutik.



Saab guztiak dira

turbo. diesel.

eta batzuk, gainera,



Orain, Saab-ek turbodiesel teknologia aurreratuena eskaintzen dizu, bai eta 176 ZPraino ere, kontsumo txikiarekin prestaziorik handienak lortzeko. Gidatu **9-5 TiD Saab Gama Berria** 28.550 €tik (4.750.320 pta.) *

Saab **4urteko** bermea, km mugarik gabe

2.2 TiD eta 3.0 V6 TiD turbodiesel motorrak. Sedan eta Station Wagon. 3 ekipamendu maila. BEZA, matrikulazio zerga eta garraioa barne.

ANATA MOTOR. Bilbo-Asua errep., Fatima industrialdea, z/g (Enekuriko gaina). Tel: 94 474 57 80. Erandio.